


Larrazkena Baztanen

Urriko hilabetea joan zaiku, urteak duen sasoiñ ederrenetako bat eguraldi ederra egiten duen. Zerua garbi, haizegoa, nekazariak iratzetan, eiztariak usoen zain, mendizaleak gallurrez gallur naturalearen edertasunez goxatuz. Halere txarrera ematen badio neguaren itxura harturik, ez da batere goxo izaten.

Holaxe joan zaiku Urriko hilabetea orotarik izan dugula. Ferietan ere mugimendu haundia izan dugu eta urtero bezala egun aipagarria. Azaroan sarturik bagoaz gain-bera negu aldera eta hementxe dugu San Martin egun aipagarria batez ere nagusi eta maisterren artean. Maisterrak nagusiari urteko errenta ordaintzen dio eta San Martin egunean egiten zen ordainketa hori. Orain gauzak aldatu dira eta ez da lenago bezala bainan izanen dira hain segur baka-rran batzuk ohitura ortan jarraitzen dutenak. «Aldairek» ere izaten ziren Sanmartinetan, au da, etxez aldatzea, batetik bertzera aldatzea. Txarretik onera izaten zenean familia kontent, baina onetik txarrera gertatzen bazen, ordutan tristezia eta zorigaitza familitan. Zerbait baserrietako sukaldeko pareta zaharrak solasean balekete, zer gauzak agertuko luketen, zer nigarrak egin ote zituzten zenbait etxetan. Nagusiak hola aginduta, etxe ona utzi eta bertze etxea erremez batera joan behar bizitzera. Denbora batek holako franko gertatuak dira gure eskualdeko familitan. Nagusiak etxe hori bear zuela eta famili horrek etxe hori utzi behar eta bere puske guztiak bildu eta etxea ustu Sanmartinetako.

Senar-emazte gazteak, aitetxi eta amatxi eta bi haur osatzen dute familia eta ari dira etxeko puske guztiak biltzen. Nagusiari urteko errenta ordaindu eta kito. Bizi-lekua ez dago hain urrun eta San Martin bihamunean etxea utzi eta abiatu dira bizi-leku berriari



buruz. Beiaik uztarrian eta orga puskez beterik, lanebesak eta gain-nerako guziak. Beti izaten baitziren laguntzaileak, Barrideko lagun batek lagundu ditu bere orgakin ere eta holaxe garraio guzia aisago egin dute. Bei, ardi, zerri eta oiloak ere denak bildurik eta baita ere arto, lursagarra, banabarra, gaztariak eta urtean bildu duten guzia ere den dena daramazkete eta famili guzia oñez baserri zar hori erdietsi arte.

Aitzineko egun hoietan ari izan-ak dira bizi-leku berria garbitzen eta nolapaitere antolatzen eta aski ongi ezarri dute baserri zaharra. Bizi beharrak bortxatzen du gizona lana egitera eta holaxe familia lotu da eginhaal guzian etxea apaintzen eta txukuntzen.

Gizon gaztea, enantzu haundiko gizona eta lan guzietan entregu, lanak ez di izitzen. Aitetxi ere oraindik indarrean, bi gizonak sasoin ederrean eta emaztekiek ere gizonen ondoan lanean bururik goratu gabe.

Azaroa badoa eta badirudi eguraldia txaritzen ari dela, ortoska eta ifeiztureka eta ondolik erauntsi boritza eginik negu itxura artzen duela. Erranairu batek holaxe dio: «Goiz negu bi negu» eta aunitz aldiz hori gertatzen.

Elurra ari du eta etxeko gizon gaztea lehoitik begira eta elurrari bertsoa ematen dio:

«Elur melur ez diet hire beldur, badiet etxean arto ta egun».

M. Izeta

Gure euskalerri zaarrari-buruz liburu berria

Ez dakizute nolako pozez artu dutan nik, orain-oraintxe argitaratu zaigun liburu berri ori. Eta badakit poz aundiz artuko dutela gure Erriaren edesti edo istoriaz zaleturik egon ditezkeen euskaldun guztiak.

Izanere, zbai al da mundu ontan, bere edestia jakitea atsegin ez zaion Erririk? Nork ez ditu gustora entzuten bere leenagokoan albisteak.

Nor ziren, zer ziren, nolakoak ziren, zer egiten zuten, nola bizi ziren, zertaz bizi ziren, gaitzetatik osasuna gordetzeko sendagairik ba'zuten, emakume eta umee-kin nola moldatzen ziren, erlijiorik ba'zuten eta erlijio ori nolakoak zan, zer sinisten zuten, zeri zioten bildur, zer maite zer gorroto zuten...

Ba, galde guzi oiei erantzun-ematera, eta arazo oiek denak argitzera datorkigu liburu berri au.

Liburu ederra da, mardula, oparoa. 617 orrialde bai bait ditu! Argazki edo «ilustrazioz» beteta dago gaine-rra! Eta, orrek, jakiña, askoz atsegiñagoa biurtzen digu liburu orren irakurketa.


Liburuaren egillea, Anes Arrinda da. Euskerazaintza Akademiaren kiderik bikaiñenetakoa, euskeraz ere erruz idatzi duena, eta euskaltza- leen artean oso ezaguna eta begirune edo errespeto aundiz ikusia; len ere oraingo liburuaren gaitiaz beste liburu asko argitaratua. Ortarako benetan ederkir prestatua. Erroma'ko unibersitate batean doktoradutza irabazitako ikerle edo «investigadore» trebea bait da. Kultura txit aundiko jakintsua, langille porrokatua, bere lanaren emaitzak argitara ematerakoan zearo gizon zintzoa.

Bere doktoradutza- tesiak, Euskaldunen «Lenen Erlijioa» izan zuan gaitzat, eta ori du gaia orain argitaratu duen liburu berri onek ere: Euskaldunen Erlijio zaarra, eta erlijio artatik sortutako euskaldunen oitura zar bereziak.

Ez dizut oraindik esan liburu onen izenburua, titulu. Ona, bere izenburu ori: «Los Vascos del Animismo a la Romanización». Zerbait azaldu bearko dizkizut itz oiek:

«Animismoa» erlijio mota bat da. «Gauza guztiek anima bat badutela erakusten duen erlijioa. Gaur, oraindik, mundu zabalean Erri asko eta askotako jendeak «animistak» dire, eta orrela izen ziren euskaldunak ere antziñate zaar artan. Badiraute oraindik emen «animakeri» aren aztarnak gure erriko jende askoren siniskerietan.

«Romanización» itzak, «erromatarren kultura artzea», ots, «erromartzea», esan nai du. Etorri ziran ba erromatarak Euskalerri eta artu zuten euskaldunek, beren nortasunik galtzeke, erromatarren kultura puntu-askotan, batez ere erlijioari zegozkion siniskerie-



tan.

Ori dugu ain zuzen Euskalerriari-buruzko arazorik kilikagarriena: Nola, naiz erromatarren kulturaz ain oparo jantzi, Euskalerriak ez zuela bere NORTASUNA galdu. Euskalerriak, nai izen zituen edergaillu guztiak artu zituen kezkarik gabe Erroma'ko kultura aberatsetik, bañan ez zuen bere betiko kulturarik galdu! Ez zitzaigun erromartu! Beste erri guztiak bai. Baña Euskalerria ez. Len bezain euskaldun jarraitu zuen!

Jentillak ziren garai artan euskaldunak. Eta, aien jentilerriari-buruz milla pitxikeri aurkituko dituzu Arrinda'ren liburu ontan. Adibidez, zbai al dakizu gure arbasoek abereak gurtzen zituztela? Astoa, -Astotxo gaixoa bera ere- gurtzen zutela bai al dakizu? Bai ba. Aien sasijainko batek Asto bait zuen izena: «Asto Illuna». Eta beste batek Aker: «Aker Beltza».

Ez dut ordea, emen, liburuaren 617 orrietan aurkitu dezakezunaren berri ematerik. Liburu bera erostea gomendatzen dizut. Idatzi egiozu ortarako egille bera-ri (Iper-Kale. Deba. Gipuzkoa).

Ez zaizu damutuko.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Ematea negozioa al da?

«Txanpon bi bota zituen» (Mk. 12, 38-44)

MUNDUA era guztietako jendez osatua dago. Mundu onetan badira aberatsak eta badira pobreak; badira jakintsuak eta badira ezjakinak; badira nagusiak eta badira morroiak.

Jesus-en garaian ere beste orrenbeste gertatzen zen. Jakifekoa da, ia beti ala gertatu izan delako, historiak ekintza aundiak kontatu izan ditu eta arruntak isildu. Eta Jesus emakume pobre aren jokaeraz erreparatzen da. Jesus- ek pobreak, emakumeak, gaisoak, zapalduak eta baztertuak egiten dutena artzen du gogoan.

Orain amar urte aña pobre omen dira Estaduan, au da, zortzi milloi. Beste errialdeetan ere beste orrenbeste gertatuko da. Gauza guztietan aurreratu du gizakiak, gauzak gero ta obeto egiten ari dela dirudi... onmdasunak banatzeko garaian, ordea, ez du asmatu ondo egiten.

Ez da naikoa itzeko justizia. Justizia eta ondasunen banaketa egiazkoa izan bear du, gizarteaz gauzatua. Justizia ez da, ordea, besteek egin bear duten edota bizi bear duten zerbait; norbakoitzak egin, bizi eta gauzatu bear da justizia.

Gure artean bakan batzuk bakarrik dira emateko prest direnak, Eman, ematen dugu, baiña gero ordainetan zerbait artzeko asmotan. eman eta gero ezer artu ez, negozio txarra dela pentsatzen dugu.

Elizari ere beste orrenbeste gertatzen zaio. Badira gure elizbarrutietan diru asko biltzen diren parrokiak. Oiek dira eredu eta oietan egiten da lan. Badira beste batzuk, geienak, diruz osatzen ez direnak, baiña pastoral mailan lan egoki eta txukuna egiten dutenak.

Eta zer gertatzen da ez diru, ez pastoral antolakuntza eta apez edo laiko preparatuak ez dituzten eliza eta parrokietan? Agintarien erantzuna, geienetan, au izan oi da: «Ez gera iristen denetara».

Eta zer gertatzen da apezekin? Askok eta asko dira erri txikitlan lan egin baiño iri-buru edota erri aundietan bizi eta lan egin nai dutenak. Orrela, apez guztiak kapitalean bizi dira eta gutxi batzuk erri txikitlan.

Justizia eskatzen duenak, berdintasuna eskatzen duenak... ez al du justizia egin bear? Ez al du berdintasuna erreztu bear? Elizbarrutiko parrokiak, kristau elkarteak eta erlijiosoen elkarteak bisitatu ez dituzten gotzaiak badira. Lan ugari eta arazo aundiak izango dituzte gotzaiak, bai, ez dut zalantzarik egiten; pobreak eta txikiak, ordea, gotzaiaren itz jator eta pozgarriak entzuteko eskubiderik badu. Gogoan izan, gauzak zuzen eta egoki banatzea guztioi dagokigu.

Artzalluz'tar Joxemari

Sole Erbiti'ren euskal emaitza

Sole Erbiti, Nafar euskalduna dugu, berez, Ultzama'tarra. Urte aunitz daramazki lanean euskaren alde Nafarroa'n. Bere bizitza osoaren emaitza orixe izan da. Ir-ya'nik eta Nafarroa'n barrena ibilia da euskara zabaltzen; urte aunitz dire, baita lana ugari egiña.

1973'garren urtean, Diputazioa'n sortu zuten, eziketa saillean euskal gaietako zuzendaritza. Norbait sendoa, nortasun aundikoa, euskaldun nafartarra bear eta sortu zuten lan tokia. Egin zituzten azterketa nagusiak eta Sole Erbiti'k lortu zuen lan ori.

Amaika urtez, bakar bakarrik, euskara gaitan buru izan zen Nafarroa'ko Aldundian.

Aurreneko lana, 1973'garren urteko udaran, euskarazko irakasleentzat ikastaroa zuzendu zuen. Lendabizi egiten zen lan ori ta irurogei irakaslegai Nafartarrak etorri zitzaizkion Jon Oñatibia zuzendari ta irakasleak ezin obeak zituzten: Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Marzelino Garde, Juan Larrañaga, Patxi Arraras, Jose Maria Satrustegi, Latxaga ta abar. Ura zen euskararen udaberria! 1974'garren urtean, berriz ikastaro berdiña egin zen, Jon Oñatibia'ren zuzendaritzapean; 120 irakaslegaiak etorri ziren.

Gora ta gora zijoa irakasleen ikastaro au eta 1979'garren urtean, Larrarte'ren zuzendaritzapean, 365 irakaslegai etorri zitzaizkien.

Sole Erbiti'k ikastolen zerrenda aundiari sortzen lagundu zion: Lesaka (1974), Eauarte (1975), Ot-



sagi (1975), Zangotza (1975), Et-xalar (1976).

1975'garren urtean Aldundi'ko arau nagusia zabaldu zen euskara ikastetxe irikietan sartzeko. Ortzen ibilli zen Sole Erbiti irakasleentzat ikastaro berexiak sortzen. Nola ez? Ainbertze ikastetxentzat irakasleak billatu beearrak zeuzkan. Larunbatero biltzen zituen euskara erakatsi nai zutenak. Leitzan ere eraiki zuten euskaraz ikastetxe aurrelaria, eredu aundikoa bezala.

Irakaslen ikastetxean euskararen alia sortzen alegindu zen. Emakume onen ardurapean asi ziren laguntzen gaueskolak. Amaika urte oyetan (1973-1984) naiko urrats eman zituen euskararen alde Nafarroa'n.

Nor dugu gure euskalzale sut-sua? Urrikenia'ko alaba da, Illarregi'n (Ulzama) azia, 1942'garren urtean jaioa. Bigarren mailako ikasketak Iruñan egin zituen. Maixutza ere Iruña'n egin zuen (1961). Beruete'n erriko irakasle bezala egon zen. Legegintza Iruña'ko Ikastetxe Nagusian lortu zuen (1967-1972).

Euskal zaletasuna noiztik nora? Aurtzaroan Julia Foz Zabaleta andreari entzun zion: «Euskara ederra zala». Entzun eta gelditu. Aunitz irakurri du Kanpion; batez ere «Erraondoko Txistularia». Euskara, Urrikenia'ko izeba Martina'ri zor dio. 1965'garren urtean, euskara sakontzera Oñatibia'ren ikastarora joan zen Iruña'ra.

Orain, berriz, zertan dabil? Nafarroa'ko Jaurilaritza euskara saillean lana egiten du ikaskintzaren landako ekintzetan; ipui, olerki, antzerki sariketarak euskaraz antolatzen. Etxean ere euskara lantzen du bere iru seme-alabekin. Senarra Andosilla'tarra dauka.

Astia daukanean euskaraz idazten du «Diario de Navarra» egunkarian. Len «Principe de Viana» aldizkarian egiten zuen. Orrelakoxeak dire Nafarroa'ko euskal loreak.

Latxaga